



2017

AGENDA

kultura eta aisialdia

U R T A R R I L A

DETSTVO, ERRUSIAR DANTZA-TALDEA

Ekaterinburgoko dantza-eskolako haur eta gaztez osatua, beren errepertorioan dantza folklorikoez gain klasikoek eta modernoek ere tokia dute. Emanaldian "Ordulari magikoa" izeneko ipuinaren antzespren dantzatua eskainiko dute.



Sarrera:
2,5 €.

El grupo ruso de baile interpretarán con sus bailes el cuento "el reloj mágico".

HAUR PARKEA

Ludoteka erraldoia, puzgarriak, pista amerikarra, simula-tzaileak, surf ohola, 5D zinema kabina, talo-tailerra....



Parque infantil en el polideportivo.

XXIV. SAGARDO BERRIAREN EGUNA

Sagardoaren Lurraldeak 2016ko uztaren eta sagardo berriaren ezaugarriak emango ditu ezagutzera kultur etxean 12:00etan hasiko den ekitaldian. Ondoren kultur etxe ondoko sagastian sagarrondo berri bat landatuko da.

Txotx irekiera Astigarragako Zapiain sagardotegian irekiko da denboraldi berriko lehen kupela.

Murgia jauregian 18:30ean familientzako sukaldaritza tailerra izango da sagardotegiko menua prestatzen ikasteko. Izenematea eta informazioa info@sagardoarenlurraldea.com / 943 550 575.

Ondoren, txotx irekiera herrikoia, pintxo eta sagardo dastaketa, musika, kantak, etab.



Inauguración de la nueva temporada de la sidra a las 12:00 en kultur etxea, a continuación se plantará un nuevo manzano y se abrirá la primera kupela en la sidrería Zapiain. A las 18:30 taller de cocina para familias en Murgia y al finalizar txotx popular: pinchos, sidra, música...

12

OSTEGUNA
 Liburutegian


ALIZIA IPUIN KONTAKETA

18:00etan 3-5 urte bitarteko haurrentzat.

18:30ean 6-9 urte bitarteko haurrentzat.

Ipuin-kontalaria: Lur Korta.

*Hora del cuento para niños-as de 3 a 5 años a las 18:00
y para los-las de 6 a 9 años a las 18:30.*

11-18/ 12-18

ASTENAZKENA
 eta **OSTEGUNA**

ZILEGI ESKOLAK

Automakillaje ikastaroa Nabarra Oñatz kaleko lokalean. Parte-hartzaile bakoitzak bere makillatzeko produktuak ekarri beharko ditu.

11 09:30-11:30

18 18:30-20:30



Txalaparta ikastaroa kultur etxean

12 18:30-20:30

18 09:30-11:30



DOAN. Izenematea Astigarragako AEK euskaltegian, astigarraga@aeik.eus.

Antolatzailea: Udaleko Euskara saila eta AEK euskaltegia.

Talleres gratuitos en euskara de txalaparta y automaquillaje.

MAGIA LAPURRA

Asier Kidam magoak, Alfonso Diez eta Iraitz Lizarraga antzezleek eta Bittor Agirre piano-jotzaileak antzerkia, magia eta zuzeneko musika uztartu eta magia eta sorpresaz betetako antzezlan eskainiko digute.



*Espectáculo infantil de teatro con magia
y música en directo.*

16

ASTELEHENA

Liburutegian

19:30

LITERATUR SOLASALDIA

Jorge Carrerok zuzenduta, hilabete honetan Marian Engel idazlearen "Oso" liburuaren ingurukoa izango da.

Hizkuntza: espainola.

Charla literaria.



21

LARUNBATA

Kultur etxean

17:00

PHANTOM BOY
ZINEMA

Animazioa

Iraupena:

84 min.

Sarrera: 2 €.

Antolatzailea:

Euskara saila.



Película en euskara para todos los públicos

JAINKO BASATIA

Yasmina Reza antzerkigile frantsesaren obra bat da, jatorrizko bertsioan arrakasta itzela izan zuen, hainbat hizkuntzara itzuli eta ibilbide oparoa egindakoa da.

Guraso bikote bi elkartuko dira beren semeen arteko sesioaz eztabaidatzeko, bikote baten semeak besteenari makilka eraso baitio. Hasieran elkarriketa lasaia zena, itxuragabe, egoera kaotiko bihurtuko da.



Sarrera: 6 €.

Teatro en euskara sobre dos parejas de padres y madres enfrentadas por la pelea habida entre sus hijos.

HAURREN AISIALDIA EGUBERRIETAN

2-5 URTE

JOLAS TXIKI kiroldegian: joko didaktikoak, lankidetzakoak eta taldekoak, urtarrilaren 2, 3, 4, eta 5ean 9:00etatik 13:00etara.

Prezioa: 36,50 € bazkideek eta 44,30 € gainontzekoek.

Beharpenak: %10 bigarren senidearen izenematean.

9-12 URTE

JOLAS ARETOA kultur etxean: mahai-jolasak, kartak, futbolina, jolas makinak, ping-pong mahaiak... urtarrilaren 2 eta 3an.

Ordutegia: 11:00-13:00 eta 16:00-18:30.

Sarrera irekia eta doakoa.

*JOLAS TXIKI (2-5 años) en el polideportivo del
2 al 5 de enero de 9:00 a 13:00 h.*

*SALA DE JUEGOS (9-12 años) en kultur etxea
el 2 y 3 de enero. Entrada libre y gratuita.*

Kultur etxean

YOGA IKASTAROAK

YOGA, astearteetan (9:30-11:30) edo ostegunetan (19:00-21:00).

Cursillos de yoga de enero a junio en kultur etxea.

LABUR

10 *Gurasolagun ludoteca y taller en la salón de la ikastola. Proyecto dirigido a padres y madres que quieran practicar euskara, en el que participan personas que ya saben euskara con aquellas que están aprendiendo. La ludoteca se abrirá de nuevo tras las vacaciones escolares los martes y jueves de 16:45 a 18:00. El 17 de enero habrá un taller. Para participar tienen que acudir los-as niños-as acompañados-as de un-a adulto-a y hablar en euskara. Para el taller además hay que inscribirse. Organizado por AEK euskaltegia, asociación de padres y madres de la ikastola, Xaguxar y departamento municipal de euskara.*



13-27 *Audiciones musicales de los-as alumnos-as de Norberto Almandoz musika eskola el día 13 a las 18:00 de guitarra y el 27 de pandero y acordeón a las 19:00.*

10 Gurasolagun ludoteka eta tailerra ikastolako aretoan. Euskara ikasten ari diren gurasoak eta euskaraz badakitenak elkartu eta euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa. Ikastolaren oporren ostean ludoteka astearte eta ostegunetan 16:45etik 18:00etara zabalduko da berriro eta urtarrilaren 17an tailerra egingo da. Parte hartzeko baldintzak dira gurasoak hurrekin bertaratzea eta denek euskaraz hitz egitea. Tailerrerako izena eman behar da. Antolatzaileak: AEK euskaltegia, Herri eskolako guraso elkarte, Xaguxar eta Udaleko euskara saila.



13-27 Musika emanaldiak Norberto Almandoz musika eskolan hilaren 13an 18:00etan gitarrako ikasleena eta 27an pandero eta eskusoinukoena 19:00etan.

2017 AGENDA

kultura eta aisialdia

U R T A R R I L A

SARREREN SALMENTA

kultur etxean emanaldiaren astean eta egunean bertan
ordubete lehenago. On-line erosteko aukera
www.astigarraga.eus

*Venta de entradas en kultur etxea durante la semana
o una hora antes del inicio. On-line en www.astigarraga.eus*

www.euskera.buruntzaldea.org/euskara/agenda



Astigarragako Udala

Astigarragako kultur etxea
943 33 50 64